



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 20a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00421. Galdera, Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00422. Galdera, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00423. Galdera, PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00424. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00425. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00426. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00427. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00428. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00429. Galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00430. Galdera, MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00431. Galdera, MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00432. Galdera, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00433. Galdera, garraiorako erositako arnasgailuen ezaugarriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- 11-24/PES-00434. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00435. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00436. Galdera, Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00437. Galdera, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00438. Galdera, 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00439. Galdera, Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berriro sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00440. Galdera, bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-24/PES-00441. Galdera, Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruenigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-24/PES-00442. Galdera, SCRAPei baimena emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-24/PES-00443. Galdera, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-24/PES-00444. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-24/PES-00445. Galdera, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- 11-24/PES-00446. Galdera, gripearen aurkako txertoen stock faltari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- 11-24/PES-00447. Galdera, Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00421. Galdera, Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA**Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuan 202406981 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko urriaren 14an (11-24/PES-421 galdera), askotariko informazioa eskatzeko Tenerías Omega enpresak aplikatutako onura fiskalei, dirulaguntzei eta laguntzei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Villatuertako Tenerías Omega enpresak aplikatutako laguntzak, dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, jotzen da eskaera egin duen parlamentariak hain zuzen ere laguntzen nahiz dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi dituela, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapena da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituen:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzat hartuko.

Hori dela-eta, ohartarazten da erantzun hau Villatuertako Tenerías Omega entitateak aplikatutako onura fiskalen inguruan eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei eta laguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitzakeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik entitate horrek jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikulua hori: "Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu

behar dituen tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu”.

Hori dela-eta, lege-araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabil daitezkeela, hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabili ahal izanen direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzea du xede TFLOren 105.1 artikulua. Hala ere, hain argia eta biribila izan arren, arauak salbuespen batzuk edo legezko gaikuntza batzuk onartzen ditu, lagapen edo komunikazio hori baimentzea ahalbidetzen dutenak.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Villatuertako Tenerías Omega enpresak azken hamar urteetan aplikatutako onura fiskalei buruzko informaziorik eman.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Villatuertako Tenerías Omega enpresak jasotako dirulaguntzei eta onura fiskalei buruz (11-24/PES-00421). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

TENERÍAS OMEGA enpresak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentutik azken hamar urteetan jaso dituen laguntzak I. eranskinen jasotakoak dira.

Ejercicio	Texto	Importe	Centro gestor	Número expediente	Fecha compensación	Clave referencia 3
2013	A31241227: TENERIAS OMEGA SA Att: Alberto Navar	5.421,86	16340	CONTA 2012 0100004321	22/01/2013	G/124004/4709/431300
2014	EXPT E P13-032 SUBV MEJORA PRODUCTIVIDAD	5.600,00	18120	CONTA 2013 0080003259	30/01/2014	G/180009/7709/467300
2016	0011-1132-2011-000139 SUBV PRODUCTIVIDAD (RECURSO)	28.800,00	16510	CONTA 2015 0080003378	28/01/2016	G/125003/7709/467300
2019	TENERIAS OMEGA SUBV BONOS INTERNAC PYMES	2.325,00	81430	CONTA 2019 0080003535	27/11/2019	G/810003/4709/431300
2023	Sobrecoste energía	43.233,51	81100	CONTA 2022 0080005554	04/01/2023	G/810001/4701/422204
2024	&Ayudas para realizar proyectos de I+D. Convocato	3.175,17	82600	CONTA 2023 0080005163	03/01/2024	G/820005/7701/467309
TOTAL		88.555,54				

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00422. Galdera, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202406980 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko urriaren 15ean (11-24/PES-422 galdera), sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek likidazio oinarri negatiboek konpentsazioari buruzko askotariko informazioa eskatzeko. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galderaren harira, honako hau adierazi behar da oro har:

– Ez dira sartzen kooperatiben datuak, kooperatibek kuotak konpentsatzen baitituzte, eta ez, ordea, zerga oinarriak.

– Lortutako datuen artean desberdindu egin dira aitorten indibidualei dagozkienak (ez dute kontsolidazioan tributatzen) eta kontsolidazio taldeen aitorpenei dagozkienak, talde fiskaleko sozietate nagusiek aurkeztutakoak.

Datuak eskuratu diren eguna, 1, 2, eta 3. galderak:

Aitorten indibidualak (ez kontsolidatuak):
2024/10/22

Aitortenak kontsolidazio taldeetan:
2024/10/24

Datuak eskuratu diren eguna, 4. galdera:
2024/10/25

1. Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek zer zenbateko dute konpentsatzeke likidazio-oinarri negatibo gisa?

Aitorten indibidualak (ez kontsolidatuak):
3.384.521.507,58 euro.

Aitortenak kontsolidazio taldeetan:
873.704.781,37 euro.

2. Nola zehazten da zenbateko global hori urtebeteko ekitaldika?

Aitorten indibidualak (ez kontsolidatuak):

URTEA	ZENBATEKOA
2023	316.166.172,57
2022	334.261.747,46
2021	218.390.813,61
2020	195.231.673,05
2019	154.209.442,90
2018	153.976.412,51
2017	198.265.359,91
2016	158.690.582,62
2015	193.552.085,15
2014	284.310.555,75
2013	256.114.579,23
2012	253.750.892,43
2011	249.233.471,15
2010	186.782.398,10
2009	231.585.321,14
GUZTIRA	3.384.521.507,58

Aitorpenak kontsolidazio taldeetan (*):

	Kontuan hartu gabe zifra erlatiborako tributazioa (%)	Kontuan hartuta zifra erlatiborako tributazioa (%)
2023an sortutako OLNak:	37.690.230,93	36.917.079,98
Aldia amaitzean konpentsatzeke dauden taldeko OLNak:	655.656.395,16	591.938.636,54
Aldia amaitzean konpentsatzeke dauden taldean sartu aurreko OLNak:	180.358.155,28	167.083.694,77
GUZTIRA	873.704.781,37	795.939.411,29

(*) Zehaztasunak:

Kontuan hartu behar da konpentsatzeke dauden taldean sartu aurreko OLNak aitorpen indibidualen (ez kontsolidatuena) taulan sartuta daudela, kasuan kasuko urtean.

Ezin da urteen arabera banakapena egin aitorpen kontsolidatuaren ereduaren.

3. Zenbateko globala nola dago banatuta enpresa handien, enpresa txiki eta ertainen, kooperatiben eta mikroenpresen artean?

Aitorpen indibidualak (ez kontsolidatuak):

ENPRESA MOTA	ENPRESA KOPURUA	ZENBATEKOA
MIKRO	539	786.937.703,01
ETE	563	1.057.976.172,32
ENPRESA HANDIAK	557	1.539.601.518,66
GUZTIRA	1.659	3.384.515.393,99

Aitorpenak kontsolidazio taldeetan:

ENPRESA MOTA	ZENBATEKOA	
	Kontuan hartu gabe zifra erlatiborako tributazioa (%)	Kontuan hartuta zifra erlatiborako tributazioa (%)
MIKRO	8.870.471,67	8.870.471,67
ETE	72.679.056,71	72.679.056,71
ENPRESA HANDIAK	792.155.252,99	714.389.882,91
GUZTIRA	873.704.781,37	795.939.411,29

4. Azken 15 urteotan, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek zer zenbateko (ekitaldika zehaztuta) konpentsatu dituzte likidazio-oinarri negatibo gisa?

Aitorpen indibidualak (ez kontsolidatuak):

URTEA	ZENBATEKOA
2022	222.247.453,26
2021	230.086.018,41
2020	139.285.105,89
2019	233.108.716,18
2018	218.616.709,37
2017	239.216.392,88
2016	244.663.163,03
2015	217.419.373,63
2014	221.707.797,56
2013	198.215.577,57
2012	160.821.106,22
2011	148.759.237,09
2010	181.521.741,59
2009	172.287.531,11
2008	121.934.265,60
GUZTIRA	2.949.890.189,39

Aitorpenak kontsolidazio taldeetan: Ezin da urte-en araberako banakapena egin aitorpen kontsolidatuaren eremuan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00423. Galdera, PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202406979 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko urriaren 15ean (11-24/PES-423 galdera), PFEZaren aurrezkiaren likidazio oinarri bereziaren eta oinarri orokorraren batez besteko tasari buruzko informazioa eskatzeko. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Emanen den informazioa gaurko egunean lortu da, 2024ko urriaren 15ean, 2013tik 2022ra arteko zergaldiei dagokienez egun horretara arte Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako per-

tsiona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitortpenen erregistroetatik.

Ez dira sartzen 2023ko zergaldiari dagozkion aitortpenen datuak, oraindik behin-behinekoak baitira.

2. Aitortpen horien erregistroetatik modu agregatuan eta sistematizatuan lortu ahal izan dira honako magnitude hauek, likidazio oinarri orokorrari, aurrezkiaren likidazio oinarri bereziari, kuota orokorrari eta aurrezkiaren kuota bereziari dagozkienak.

Zati orokorrari aplikatutako batez besteko tasa kuota orokorra likidazio oinarri orokorragatik zatitu ondoko emaitzaren zatidura da. Bestalde, aurrezkiaren zati bereziari aplikatutako batez besteko tasa aurrezkiaren kuota berezia aurrezkiaren likidazio oinarri berezia gatik zatitu ondoko emaitzaren zatidura da.

Guztizko batez besteko tasa aurrezkiaren kuota bereziaren eta kuota orokorraren batura aurrezkiaren likidazio oinarriaren eta orokorraren baturagatik zatitu ondoko zatidura da.

Jarraian aurkezten dira azken hamar ekitaldientan aplikatutako ez besteko karga tasak, 2013tik 2022ra arteko zergaldiei dagozkienak, honen arabera banakatuta: batez besteko karga tasa likidazio oinarri orokorrerako, batez-besteko karga tasa aurrezkiaren likidazio oinarri berezira eta guztizko batez-besteko karga tasa.

IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

Tipo medio de gravamen			
Año	Base Liquidable General	Base Liquidable Especial del Ahorro	Base Liquidable Total
2013	24,65%	22,42%	24,50%
2014	24,71%	22,74%	24,57%
2015	23,95%	21,14%	23,71%
2016	24,34%	22,27%	24,32%
2017	24,55%	22,45%	24,44%
2018	24,72%	23,53%	24,65%
2019	24,95%	23,68%	24,89%
2020	25,01%	23,78%	24,96%
2021	25,17%	23,84%	25,11%
2022	25,40%	23,85%	25,32%

Fecha explotación de los datos: 15 de octubre de 2024

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00424. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-424) –2024ko urriaren 10ean erregistratua Nafarroako Parlamentuan 202405925 zenbakiarekin– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) webgunean Sodena enpresa publikoari

buruz jasotzen den gardentasunari buruzkoa. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

- Sodenak duela gutxi berritu du haren webgunea, eta NEKParen webguneko gardentasunaren apartatuan agertzen zen esteka ez zen zuzena. Behin zuzendu ondoren, arazo barik sartzen ahal da Sodenaren gardentasuneko apartatura: <https://www.sociedadespublicasdenavarra.es/eu/open-gardentasuna>

- Arazoa 2024ko urriaren 18an konpondo zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Bide batez, jakin emandako informazioa konfidentziala dela.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00425. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00425 idatzizko galdera egin du, 2024ko zenbait aurrekontuko partidaren exekuzioari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko

eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak honako hau jakinarazten du:

710004 71300 4700 412211 “Hesi birtualetarako lepokoak erosteko laguntzak” partidari dagokionez, 205.000 euroko kreditua zuen, eta laguntzen deialdi publiko bat egin zen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren 353/2024 Ebazpen bidez, norgehiagoka; horrez gainera, lehenesteko irizpide batzuk ezarri ziren mendialdeen edota arraza autoktonoen arabera. Emakida jadanik egin da eta irekita dago onuradunei ordainketa egiteko justifikazio epea. Guztira 29 onuradun izan dira, eta 197.700 euro eman zaizkie guztira. Pertsona bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa izan da. Eskaera kopurua aurreikusten zena baino handiagoa izan da eta deialdia

ren oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera egin behar izan da lehenespena. Onuradun guztiak dira abeltzainak edo abeltzaintzako sozietateak, eta jarraian zerrendatzen dira:

ONURADUNEN IZENA	EMAN BEHARREKO ZENBATEKOA
ALCASENA IRUNGARAY PATXI	6.000,00 €
AYECHU SANCHA ALFONSO	3.600,00 €
AZCOITI DE ANDRES ENRIQUE	3.000,00 €
BAINES PILART JOSEBA GABRIEL	15.000,00 €
CARLOS OROZ TORREA Y LAURA OROZ TORREA SCA	9.000,00 €
CILVETI LECUMBERRI IÑAKI	4.500,00 €
ECHEVERRIA OSACAR JOSE ANTONIO	1.500,00 €
ELORZ AMATRIAIN JOSE ANTONIO	10.200,00 €
ESEVERRI PORTAL ARTURO	4.500,00 €
ESPARZA PATERNAIN ALFONSO ETA ESPARZA PATERNAIN OSCAR	15.000,00 €
GARRALDA ZUBIRI JAVIER MARTIN	4.500,00 €
GOÑI ELORGA ANA MARIA	4.500,00 €
IGOA JAIMERENA MIKEL	3.600,00 €
IRAOLA MENDIBURU GREGORIO	4.500,00 €
IRIGOYEN URCHEGUI JOSEBA	2.400,00 €
IRIGOYEN URRUTIA ANTON	9.000,00 €
IRIGUIBEL ITURRI A M eta LARREA LEOZ M ROSARIO	8.700,00 €
JAUREGUI SARRATEA AINHOA	5.700,00 €
LESAGA ORRADRE AITOR	6.000,00 €
ORRADRE IRIARTE JESUS ALEJANDRO	9.000,00 €
PALACIOS ANDUEZA RICARDO	6.000,00 €
PILART MEDINA FERNANDO	9.000,00 €
SARRATEA SANZBERRO PELLO	3.000,00 €
SARRIES MARTINEZ FRANCISCO	6.000,00 €
SAT ZAMARGILENEA 686 NA	9.000,00 €
SC AZCONA AZCONA MI ERASO AZCONA A Y ERASO ERASO C	10.500,00 €
SC GARCÍA DE EULATE MURGUIALDAY JJ Y GARCÍA DE EULATE RUIZ	6.000,00 €
SC LASA ARMENDARIZ GUILLERMO Y ALBERTO	12.000,00 €
SUESCUN HUALDE IGNACIO	6.000,00 €

"Toki entitateentzako laguntzak, animalien babesaren arloko ekintzetarako" izenekoei dagokienez, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren 372/2024 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdi publiko bat egin zen Nafarroako toki entitateentzat, lagun egiteko animaliak babesteko jarduketak egin zituzten, bi aurrekontu-partidaren kontura, bat 4. kapitulukoa eta bestea 7. kapitulukoa, norgehiagoka bidez:

– 710004-71300-4609 -412202 "Toki entitateentzako laguntzak, animalien babeserako ekintzengatik", 200.000 euro.

– 710004-71300-7609-412200 "Toki entitateentzako laguntzak, animalien babeserako ekintzengatik", 175.000 euro.

317.336,69 euroko dirulaguntza eman da guztira. Horietatik, 200.000 euro 710004-71300-4609-412202 partidaren kontura emango dira ("Toki entitateentzako laguntzak, animalien babeserako ekintzengatik"), eta 117.336,69 euro 710004-71300-7609-412200 partidaren kontura ("Toki entitateentzako laguntzak, animalien babeserako ekintzengatik"). Guztira 76 toki entitateek eskatu zuten laguntza; horietatik 46ri eman zaie, eta 30i ukatu zaie, hainbat arrazoiengatik.

TOKI ENTITATEA	710004-71300-7609-412200: Inbertsioak							710004 71300 4609 412202: beste gastu batzuk						
	1. MOD	2. MOD	4. MOD	SUBTOTAL7	1. MOD	2. MOD	3. MOD	4. MOD	SUBTOTAL4	GUZTIRA				
Ablitasko Udala	0,00 €	0,00 €	1.407,25 €	1.407,25 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	8.150,92 €	9.558,17 €				
Adiosko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	520,30 €	520,30 €	520,30 €				
Aguilar Kodesko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	601,80 €	1.203,60 €	1.805,40 €	1.805,40 €				
Oibariko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	3.116,04 €	3.116,04 €	3.116,04 €				
Ameskoabarrengo Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	450,90 €	1.404,50 €	1.855,40 €	1.855,40 €				
Antzingo Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	487,66 €	549,91 €	1.037,57 €	1.037,57 €				
Andosillako Udala	0,00 €	30.000,00 €	0,00 €	30.000,00 €	0,00 €	0,00 €	5.663,05 €	3.452,00 €	9.115,05 €	39.115,05 €				
Aranaratzeko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	211,75 €	211,75 €	211,75 €				
Arronizko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	1.102,70 €	1.104,50 €	2.207,20 €	2.207,20 €				
Azagrako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	482,11 €	4.981,00 €	5.463,11 €	5.463,11 €				
Beriaingo Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	5.314,58 €	5.314,58 €	5.314,58 €				
Buñuelgo Udala	0,00 €	0,00 €	458,50 €	458,50 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	6.091,50 €	6.091,50 €	6.550,00 €				
Carcarko Udala	0,00 €	5.970,66 €	0,00 €	5.970,66 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	5.970,66 €				
Casedako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	3.852,00 €	3.852,00 €	3.852,00 €				
Oltza Zendeako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	1.092,00 €	1.092,00 €	1.092,00 €				
Cintruénigoko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	6.193,33 €	6.193,33 €	6.193,33 €				
Ziraukiko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	702,25 €	1.654,05 €	2.356,30 €	2.356,30 €				
Deikazteluko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	468,81 €	1.267,54 €	1.736,35 €	1.736,35 €				
Lizarrako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	6.000,00 €	6.718,00 €	12.718,00 €	12.718,00 €				
Eulateko Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	417,45 €	417,45 €	834,90 €	834,90 €				
Fustiñanako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	2.632,00 €	2.632,00 €	2.632,00 €				
Iguzkitzako Udala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	455,26 €	455,26 €	910,53 €	910,53 €				

Azkenik, "Animaliak babesteko ekintzetan aitortutako erakunde laguntzaileentzako laguntzak" direla eta, laguntzen deialdi publiko bat egin zen Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren 371/2024 Ebazpen bidez, animaliak babesteko entitate laguntzaile gisa aitortutako entitateei zuzendua, lagun egiteko animaliak babesteko jarduketak egite aldera, 4. eta 7. kapituluetak partida hauen kontura, norgehiagoka bidez:

– 710004-71300-4819 -412206 "Animaliak babesteko ekintzetan aitortutako entitate laguntzaileentzako laguntzak", 100.000 euro.

– 710004-71300-7609 -412202 "Animaliak babesteko ekintzetan aitortutako entitate laguntzaileentzako laguntzak", 100.000 euro.

53.023,12 euroko dirulaguntza eman da guztira. Horietatik, 30.164,52 euro 710004-71300-4819-412206 partidaren kontura dira ("Animaliak babesteko ekintzetan aitortutako entitate laguntzaileentzako laguntzak"), eta 22.858,60 euro 710004-71300-7609-412202 partidaren kontura ("Animaliak babesteko ekintzetan aitortutako entitate laguntzaileentzako laguntzak"). Guztira zazpi entitate laguntzailek eskatu zuten laguntza, eta horietatik seiri eman zaie; batek eskatu zuen haren eskaera ez aurkeztuzat jo zedila, uste baitzuen ez zela gai izanen laguntza eskatzearen xede ziren jarduketak justifikatzeko:

ENTITATE LAGUNTZAILEA	710004-71300-7609-412202: inbertsioak		710004 71300 4819 412206: beste gastu batzuk				GUZTIRA
	1. MOD	SUBTOTAL7	2. MOD	3. MOD	4. MOD	SUBTOTAL4	
CER ABLITAS ELKARTEA	0,00 €	0,00 €	0,00 €	2.726,54 €	915,97 €	3.642,51 €	3.642,51 €
REFUGIO MUSKARIA ELKARTEA	16.069,67 €	16.069,67 €	10.000,00 €	825,00 €	400,00 €	11.225,00 €	27.294,67 €
COMARCATS AYUDA PARA GATOS ELKARTEA	0,00 €	0,00 €	406,67 €	327,85 €	0,00 €	734,52 €	734,52 €
GATICOS FELICES	1.880,00 €	1.880,00 €	0,00 €	1.390,00 €	0,00 €	1.390,00 €	3.270,00 €
EGAPELUD@S ELKARTEA	0,00 €	0,00 €	0,00 €	8.895,89 €	1.900,00 €	10.795,89 €	10.795,89 €
REFUGIO ARANZADI KATUAK ELKARTEA	4.908,93 €	4.908,93 €	2.376,60 €	0,00 €	0,00 €	2.376,60 €	7.285,53 €
	22.858,60 €	22.858,60 €	12.783,27 €	14.165,28 €	3.215,97 €	30.164,52 €	53.023,12 €

Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak honako hau jakinarazten du:

-720003 72200 2279 413109 "Zirkuitu laburretako ekintzetako eta sustapeneko gastuak", 35.000 euro.

Gastu horiek faktura bidez justifikatuko zaizkio zuzenean gobernuari. Aurreikusten da aurrekontua agortuko dela.

– 720003 72200 2279 413105, "Mandatua INTIA erakundeari. Balio-katearen berrikuntza, zuzeneko salmenta, zirkuitu laburrak eta PLEA", 300.826 euro.

INTIAri egindako enkargua Aurreikusten da aurrekontua agortuko dela.

– 720003 72200 4400 413100 "INTIArekiko hitzarmena, kalitatezko nekazaritzako elikagaien produkzioak eta tokiko produktuak sustatzeko", 1.750.000 euro.

INTIArekiko hitzarmena. Aurreikusten da aurrekontua agortuko dela.

– 720003 72200 4609 413100 "Toki entitateentzako laguntzak, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko", 40.000 euro.

Laguntzen deialdia ez da egin. Ez da aurreikusten horretarako aurrekontua agortuko denik.

– 720003 72200 4700 414200 "Nekazaritzaren trantsizio ekologikorako laguntzak", 100.000 euro.

Laguntzen deialdia ez da egin. Ez da aurreikusten horretarako aurrekontua agortuko denik.

– 720003 72200 4819 413104 "Zirkuitu laburretako ekoizleen elkarreentzako laguntzak", 300.000 euro.

Laguntzen deialdia ebazteke dago. Une honetan kontu-hartzailtza delegatuan dago; beraz,

ESPEDIENTEA	ENTITATE ONURADUNA	IFZ	EMANIKO LAGUNTZA (€)
0011-4790-2024-000007	APPINA	G71328496	0,00 €
0011-4790-2024-000001	ASOCIACION ALLOTARRA DE AGRICULTURA Y GANADERIA ECOLOGICA	G31959513	25.562,68 €
0011-4790-2024-000002	EHKOLEKTIBOA	G71512362	20.165,54 €
0011-4790-2024-000003	ASOCIACION EKOALDE ELKARTEA	G71361455	89.992,97 €
0011-4790-2024-000004	HAZIALDEKO	G71404024	21.890,70 €
0011-4790-2024-000005	KALASKA	F71466916	17.999,85 €
0011-4790-2024-000006	ZUNBELTZ	G71450506	40.696,16 €
			216.307,90 €

eman artean ez da behin betikoa. Zazpi eskaera aurkeztu dira, honako taula honetan jasotakoak:

Emandako gastua: 43.248,64 euro, urte amaie-

– 720006 72300 4819 412100 “Elkarteentzako laguntzak, landa eremuaren jasangarritasunerako proiektuetarako”, 150.000 euro.

Emandako laguntzen deialdia.

ran ordaintzekoak.

ENTITATE ONURADUNA		PROIEKTUAREN IZENBURUA	EMANDAKO LAGUNTZA (euroak)
IZENA	IFZ		
Kabila Enea artzain kultur elkarte	G31856685	Recordar con otros mimbres	14.580,00
Nafarroako Almadiazainen Kultur Elkarte	G31399603	Transmisión, promoción y difusión de la manifestación cultural inmaterial de las almadías del Pirineo navarro.	14.900,00
Viñedos y bodegas de San Martín de Unx	G71500078	Creando marca de viñas y vinos, creando futuro para un pueblo.	12.040,64
Asociación de familias y mujeres del Medio Rural de Navarra	G31649692	Raíces Vivas: Conociendo y Valorando el Tesoro Rural de Navarra.	1.728,00

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak honako hau jakinarazten du:

74002 74200 6019 456704 partida, “Oihan-inbertsioak, larreak hobetzeko”, 200.000 euro.

– Baltsa iragazgaiztea Iribarrin (Lana): 48.154,6 € (exekututzen)

– Baltsa berreskuratzea Ameskoabarrena udal mugartean: 55.275,09 € (exekututzen)

– Sastrakak kentzea larreak hobetzeko Iratin: 15.000 € (exekutatu da)

– Larreak hobetzeko jarduketak Erromantzatua udal mugartean: 36.532,77 € (exekututzen)

– Baltsa iragazgaiztea Aezkoan: 25.297,90 € (exekutatze zain)

– Larrea sortzea Leyreko Mendietan: 6.500 (exekutatu da)

– Kanadar igarobideak eraikitzea Maze eta Mintxateko pistan eta aziendarentzako pasabideak egitea Yeguacerosen (Erronkaribar) 48.341,87 € (horietatik zati bat 2024an eta beste bat 2025ean egikarrituko da aipatutako 2025eko gastuen aurrekontuko partidaren edo baliokide baten kargura), baldintza meteorologikoen arabera. (Exekutatzeko)

740004 74400 2276 456205 partida, "Klima aldaketaren aurkako herritarren batzarrarentzako eta gizarte kontseiluarentzako euskarri teknikoa", 35.000 euro.

1. Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra abian jartzeko prozesua hasieran uste baino gehiago kostatzen ari denez, litekeena da exekutatzeko maila ez izatea osoa, eta erdia ingurukoa izatea. Azken kopurua egindako lanaren arabera izanen da.

2. Partida honetako gastuak hiru entitate motatan banatzen dira:

- Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra bideratzeko taldea. Horretarako, kasuko lizitazio prozesua egin ondoren, JPI Consultores enpresa kontratatu da, 17.968,50 euroko guztizko zenbatekoarekin, BEZa barne.

- Era berean, Batzarra aholkatuko duen adituen taldea osatzen duten hamabi pertsonen ordaintzea aurreikusi da, 12.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

- Azkenik, Batzarreko kideak konpentsatzea aurreikusi da, 4.500 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Agindu bidez Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra arautzen da, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legeko 15. artikuluan jasotakoa.

Foru Agindu horren 4. artikuluko 1.b) apartatuan honako hau aipatzen da: "eztabaida prozesuetan espezializatutako talde bideratzaile pribatu bat, parte-hartzaileak hautatu eta saioak diseinatu eta dinamizatuko dituen eta laguntza teknikoa eta logistikoa emanen duena. Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak kontratatutako talde hori".

Kontratazioa egiteko deialdia egin zitzaizen zeregin hori egiteko gaitzat jotzen ziren bi enpresari. Biek aurkeztu zuten eskaintza ekonomikoa eta JPIk, gainera, eskaintza ekonomikoa eta teknikoa aurkeztu zituen.

Bien zenbatekoa eta JPIren eskaintza teknikoa baloratu ondoren, erabaki zen hori egokia zela zereginak eskatzen zituen eskakizun teknikoetarako, eta, horrez gain, merkeagoa zen Kaizen Eureka enpresak egindakoaren aldean; beraz, hori aukeratu zen.

Hori guztia bat etorri Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoa-ekin, eta, bereziki, 193. artikuluekin.

740001 74100 7609 456200`partida, "MRR Toki entitateentzako dirulaguntza, entitate publikoetako hondakinei buruzko araudia ezartzeko laguntza-planerako".

<u>Eskatzailea</u>	<u>Dirulaguntzaren zenbatekoa</u>	<u>Xehetasunak</u>	<u>Ordaindutako zenbatekoa</u>	<u>Ordaintzeke</u>
Mairagako Mankomunitatea	220.346,82	Egiten ari da		
Mairagako Mankomunitatea	33.224,22	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	75.597,30	Egiten ari da		
Izarbeibarko Mankomunitatea	0,00			
Baztango Udala	118.414,80	Egiten ari da		
Nafarroako Erriberagoieneko HHSen Mankomunitatea	251.792,62	Amaitzeko prozesuan dago		
Nafarroako Erriberagoieneko HHSen Mankomunitatea	100.000,00	Amaituta	100.000,00	
Iratiko HHSen Mankomunitatea	0,00			
Bortzietako Mankomunitatea	47.830,95	Amaitzeko prozesuan dago		993,10
Servicios de Montejurra SA	300.000,00	Egiten ari da		
Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa	0,00			
Bortzietako Mankomunitatea	37.591,15	Amaituta	37.591,15	
Nafarroako hiri-hondakinak tratatzeko partzuergoa	0,00			
Servicios de Montejurra SA	264.217,18	Egiten ari da		
Servicios de Montejurra SA	0,00			
Servicios de Montejurra SA	77.423,06	Egiten ari da		
Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea	138.571,03	Amaitzeko prozesuan dago		52.657,88
Iruñerriko Zerbitzuak SA	370.804,77	Amaituta	370.804,77	
Iruñerriko Zerbitzuak SA	1.419.266,23	Egiten ari da		
Iruñerriko Zerbitzuak SA	0,00			
Erriberako Mankomunitatea	324.324,92	Amaitzeko prozesuan dago		233.586,02
Erriberako Mankomunitatea	0,00			
Erriberako Mankomunitatea	32.354,75	Dirulaguntzari uko egin diote		
Goi Araxesko Mankomunitatea	1.605,58	Egiten ari da		
Goi Araxesko Mankomunitatea	25.119,00	Egiten ari da		
Mendialdea Mankomunitatea	219.881,63	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	258.516,59	Egiten ari da, partzialki exekutatuta	125.681,09	
Mendialdea Mankomunitatea	100.000,00	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	100.000,00	Egiten ari da		
Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea	80.244,38	Amaitzeko prozesuan dago		11.638,76
Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea	22.968,00	Amaituta	11.286,00	
Iruñerriko Zerbitzuak SA	853.383,48	Egiten ari da		
Iruñerriko Zerbitzuak SA	160.055,01	Amaituta	160.055,01	
Iruñerriko Zerbitzuak SA	20.000,00	Egiten ari da		
Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea	3.028,86	Egiten ari da		
Servicios de Montejurra SA	280.879,95	Egiten ari da		
Nafarroako Erriberagoieneko HHSen Mankomunitatea	120.496,63	Egiten ari da		
Nafarroako Erriberagoieneko HHSen Mankomunitatea	20.000,00	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	154.388,22	Egiten ari da		
Erriberako Mankomunitatea	63.067,50	Egiten ari da		
Erriberako Mankomunitatea	39.686,52	Egiten ari da		
Erriberako Mankomunitatea	20.000,00	Egiten ari da		
Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea	136.960,22	Amaitzeko prozesuan dago		Ordaindu zen baina errekurritzeke dago
Servicios de Montejurra SA	20.000,00	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	53.352,00	Egiten ari da		
Nafarroako Hiri Hondakinak Tratatze Partzuergoa	411.930,00	Egiten ari da		
Sakanako Mankomunitatea	75.000,00	Egiten ari da		
Baztango Udala	144.838,43	Egiten ari da		
	6.049.955,09		805.418,02	298.875,76

Partida betearazteko prozedura deialdi publiko izan da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00426. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00183):

- 996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Orain arte aintzat hartu ahal izan al dira, aurreikusitako aurrekontuarekin, jaso diren eskabide guztiak?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 16ko 996E/2024 Ebazpenaren bidez, 2024an enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onetsi ziren.

Galdera parlamentarioa egin zen egunean (urriaren 10ean) laguntzen 732 eskaera zeuden eginda. Egun horretan bertan, aurkeztutako eskaeretako 371 eman dira.

Halaber, jakinarazi nahi dizugu deialdi horretako 9.8 oinarrian ei hilabeteko gehieneko epea finkatzen dela eskaera erregistratzen den egunetik laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena emateko; beraz, gaur egun, ebazteke dauden eskaerak epearen barnean daude.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00427. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den, 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak informazio eskaera bat egin du (11-24/PES-00427). Hona hemen 2024ko ekainaren 23an Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen mozioaren harira eskatu duena:

– Zer aukera aztertu da edo zer egin da orain arte, mozio hori betetzeko?

– Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak, eta mozio hori nola betetzeko asmoa du?

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Komunikazio planaren kapituluan nabarmentzekoa da Nasuvinsako eskualdeko bulegoetan eta bulego zentraletan jasotako informazio eskaeren arreta. Zehatz-mehatz, 2024ko urtarriletik urrira bitarteko aldian, guztira 621 informazio eskaera jaso dira, eta presentzialki nahiz telefonoz eta posta elektronikoki bidez izan dira artatuak.

Arreta horien banakapena herrien arabera dokumentu honetako 1. eranskinen kontsultatzen ahal da.

Bestalde, jarraitu da indartzen Nafarroako udalekin dagoen lankidetzaren esparrua Alokairuen Poltsaren programa sustatzeko. Testuinguru horretan kokatzen da Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak Nasuvinsa sozietate publikoarekin batera urriaren 28an Nafarroako Jauregian antolatutako ekitaldi instituzionala.

Ekitaldi horrek helburu hauek izan zituen:

– Alokairuen Poltsaren programaren zabalkunde publikoa indartzea, bereiziki balioa emateko Nafarroako Gobernuaren ekimen horren abantaila eta onura sozialei, okupazio gabeko etxebizitza berreskuratu nahi baitu ekimenak, horren bitartez prezio eskuragarriko eskaintza publikoa handitzeko.

– Publikoki eskerrak ematea parte hartu duten ehunka partikularrei eta enpresa pribatuei, hogei urtez konfiantza izan baitute programa horretan eta haien etxebizitzak laga dituztelako errentamenduko babesteko araubidean adjudikatu daitezela.

– Udalek eta gainerako toki entitateek izandako inplikazio aktiboa errekonozitzea, hala nola Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarena, funtsezko lana egin baitute Alokairuen Poltsa sustatzeko eta zabaltzeko nola hiri eremuan hala landa eremuan.

Bidenabar, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro ezagutzera eman du ofizialki Nafarroako Gobernuak 2025ean % 9 inguru igoko duela etxebizitza aipatutako Alokairuen Poltsarako lagatzen duten jabeen ordaintzeko prezioa.

Datorren 2025eko ekitaldiko prezioen hazkundera esanguratsu horrek helburutzat du etxebizitza Alokairuen Poltsarako lagatzea erakargarria izaten jarraitzea, eta, horrela, etxebizitza eskuragarriaren parkea handitzen jarraitzea alokairuaren merkatuaren prezio altuak intentsitate handiz pairatzen dituzten Nafarroako pertsona eta familiek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten.

Gauzak horrela, prezio berriek 2025ean hartuko dute indarra, eta metro koadro erabilgarri bakoitzeko 6,53 eurora arte iritsiko dira Iruñean, Iruñerrian, Tuteran, Lizarran eta Tafallan kokatutako etxebizitzetarako, eta 6,17 eurora arte Nafarroako gainerako udalerrietako etxebizitzetarako. Garajea lagatzeari dagokionez, erkidego osoan prezioa 72,47 eurokoa izanen da, eta trastelekuarena 2,41 eurokoa metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. eranskinean jaso da urriaren 22ko 676/2024 Ebazpena, Etxebizitzako zuzendari nagusiak emana, 2025ean zehar etxebizitza Alokairuen Poltsari lagatzeagatik ordaindu beharreko prezioak zehazten dituena.

Bestalde, despopulazio arriskuan dauden herrietan berreskuratzen ahal diren eraikinen kapituluan, gogorarazi behar da Landa Birgai-

tzeko Foru Planaren lehenengo faseak aukera eman duela zortzi udalerrik Nasuvinsari lagataka beste hainbeste higiezin berreskuratzeko, eta horiek birgaitzearen bidez hamalau etxebizitza sortu dira guztira Alokairuen Poltsaren bitartez adjudikatzeko. Zehazki, Izaban, Garraldan, Uzta-rozen, Bakaikun, Oteitzan, Iturgoienen eta Bizka-rretan daude kokatuta.

Une honetan Bizitegi merkatu tenkatuko eremuak deklaratzeko neurrien plana ari da idazten, eta barnean hartzen du Alokairuen Poltsaren sustapena; horrez gainera, hori egiteko ari gara lanean, eta aipatutako mozioan planteatutako proposamenak sartzeko ere bai. Ukitutako udalek ere indartzen ahalko dute.

Honako dokumentu hauek erantsi dira:

11-24/PES-00427 Respuesta_Anexo1

11-24/PES-00427 Respuesta_Anexo2

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

11-24/PES-00428. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00428):

- 996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Aurreikusitako aurrekontuarekin ezin izan badi-ra eskabide guztiak aintzat hartu, zenbat eskabide geratuko dira aintzat hartu gabe, eta zein izanen da zenbatekoa?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 16ko 996E/2024 Ebazpenaren bidez, 2024an enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onetsi ziren.

Galdera parlamentarioa egin zen egunean (urriaren 10ean) laguntzen 732 eskaera zeuden eginda. Egun horretan bertan, aurkeztutako eskaeretako 371 eman dira. Hortaz, 361 eskaera daude ebazteke. Une honetan ebazteko epearen barruan gaude, aipatutako deialdiaren 9.8 oinarriak ezarritakoaren arabera. Eskaerak aurkezteko epea oraindik zabalik dagoenez, ezin da jakin zenbat aurkeztuko diren, eta ezin da zehaztu eskaerarik ukatuko den aurrekontuan dirurik ez egoteagatik, ez eta zer zenbatekotan ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-24/PES-00429. Galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan, 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00429):

- 996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Aurreikusitako aurrekontuarekin ezin izan badi-ra eskabide guztiak aintzat hartu, zer jarduketa egin nahi du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, eskabide guztiak aintzat hartzeko? Zehaztu epeak.

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 16ko 996E/2024 Ebazpenaren bidez, 2024an enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onetsi ziren.

Galdera parlamentarioa egin zen egunean (urriaren 10ean) laguntzen 732 eskaera zeuden eginda. Egun horretan bertan, aurkeztutako eskaeretako 371 eman dira. Hortaz, 361 eskaera daude ebazteke. Deialdia 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" izeneko partidaren kargura finantzatzen da, eta handitzen ahal da Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 14ko 2/2024 Foru Legearen 5.8.p) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Hori dela-eta, partidaren kreditua handitzeko bi espediente onetsi dira, 670.000 euroko zenbatekoa sartzeko.

Eskaerak aurkezteko epea oraindik zabalik dagoenez, ezin da jakin zenbat aurkeztuko diren, eta ezin da zehaztu eskaerarik ukatuko den aurrekontuan dirurik ez egoteagatik, ez eta zer zenbatekotan ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00430. Galdera, MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00430). Hona hemen galdera horrek dioena:

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago gehieneko kopururik Nafarroak eskuratzen ahal duenik SEMen funtsen gerakinak banatzean 853/2021 Errege Dekretuko jarduketan inguruko 2. osagairako.

6 milioi euro eskuratuko balira, eta Eraikinak 2023 SEM Programarako erabiliko, uste da itxaronzerrendako lehenengo 29 espedienteak artatzen ahalko lirakeela, espediente horietan eskatutako dirulaguntza 6.025.000 eurokoa baita.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00431. Galdera, MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00431). Hona hemen galdera horrek dioena eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez du zertan arazorik egon epeekin, baina, argi dagoenez, kasu zehatz bakoitzaren arabera da: obraren munta (etxebizitza kopurua, eraikinaren garaiera, efizientzia energetikoari lotutako obrei gehitutako beste batzuk egiten diren ala ez eta abar), enpresa eta profesional nahikoa egotea eta abar.

Edozelan ere, jaso beharreko dirua erabiltzen ahal da Eraikinak 2023 SEM deialdirako, eta erki-degoren batek ikusiz gero ezin dituela epeak bete, arrazoiak zeinahi ere diren, aukera dute espedienteari uko egiteko eta haien plaza hurrengo erkidegoari uzteko lehentasun hurrenkeraren arabera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00432. Galdera, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00432); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, jarraian azaltzen den informazioa helarazi zuen 2024ko ekainaren 11n honako honen betetze-mailari dagokionez: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publikizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete ditzan" (11-23/MOC-00042 Mozioa); eta, zehazki, erabaki-proposamenaren hirugarren puntuari dagokionez, zeinak honako hau esaten baitu:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Legearen 67.2 artikuluan ezarritakoa bete dezan".

Kontseilariak jakinarazi zuenez, joan den apirilaren 11n argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofiziale-

an martxoaren 20ko 29/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu baitzen. Foru dekretu horretan, arlo juridikoko administrazio publikoko teknikariaren plaza bat sortu zen, 11904 zenbakiduna, Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiari atxikia. Plaza horrek euskarri juridikoa emanen dio Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari, eta dagoeneko horren berri eman zaio Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakariari.

Zer dataz geroztik ari zaio ematen euskarri juridikoa Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari, eta zer eginkizunetan datza euskarri hori?

Arlo juridikoko administrazio publikoko teknikariak zereginak izan ditu 2024ko maiatzaren 13an sartu zenetik.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari laguntza ematen dio informazio publikoa eskuratzeako eskubidearen inguruan jarritako erreklamazioen eta publikizitate aktiboko salaketan ondoriozko izapide egintza guztietan; horrez gain, Kontseiluan txostengileek egiten dituzten askotariko erabaki proposamenak analizatzen eta prestatzen laguntzen du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00433. Galdera, garraiorako erositako arnagailuen ezaugarriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak garraiorako erositako arnagailuen ezaugarriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, 11-24/PES-00235 galderan O-NOZen biltegirotutako arnagailuen inguruan emandako erantzunari buruz. Hona galdera eta Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zein dira, zehazki, "prestazio handiagoak"? Eta, orobat, erantzunean esaten da erositako arnagailuak "hobeki egokitzen" direla "Lizarrako eta Tuterako Osasun Eskualdeko beharretara",

biltegirotutako 150 arnagailuekin alderatuta; zergatik da hori, zehazki?

Eskuratutako eta biltegirotutako arnagailuen arteko alderik handiena da, nagusiki, airatzeko moduek kalitate hobea dutela, eta, horrez gain, airatze modu eskusiboak ere badituzte, hala nola ASV, airatze modu adimenduntzat hartzen dena.

Halaber, eskuratutako arnagailuek prestazio hobekak dituzte, paziente jaioberrietan erabiltzen ahal direlako (200 gramotik), eta balio hobekak dituzte ere bai honako parametro hauetan:

- Arnasa hartzeko presioa (tarte handiagoa).
- Arnasa hartzeko gehieneko fluxua.
- Airatzeko maiztasuna (tarte handiagoa).
- Arnasteko maiztasuna.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00434. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak PES-00434 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Nafarroako Gobernuaren iritziz, Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzordean parte hartzen dutenei haien zeregina garatzeko nahikoa trebakuntza bermatzen dien prestakuntzak honako eduki hauek ditu osagai:

- Berdintasunaren esparru kontzeptuala.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren esparru kontzeptuala
- Laneko arriskuak genero ikuspegiarekin
- Langileak kudeatzeko ezagutzak genero ikuspegiarekin

Unera arte, prestakuntza ekintza bat egin da Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzorderako.

2024ko otsailaren 22an, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren soldata arrakala-

ren diagnostikoa eta analisia" deritzon azterlana aurkeztu zen. Saio horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren soldata arrakalan eragina duten faktoreak azaldu ziren eta gaian sakontzeko bide posibleak aztertu ziren.

Honako hauek eman zuten saioa: Patricia Nieto Rojas, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle iraunkorra, eta Pablo Gimeno Díaz de Aauri, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea.

Batzordeko honako kide hauek izan ziren prestakuntza saioan:

- Sara San Julián Caso andrea (NABI)
- Maite López Morentin andrea (NABI)
- Maite Pérez Larumbe andrea (NABI)
- Gloria Arancón Largo andrea (FPZN)
- Yolanda Zazo Gómez andrea (FPZN)
- Isabel Vidaurre Argote andrea (FPZN)
- Ainara Elarre Belzunegi andrea (LAB)
- Ana Urdániz Tabuenca andrea (AFAPNA)
- Eva María Mier Mendiguchía andrea (CC.OO.)
- Isabel Fernández Pan andrea (UGT)

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00435. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak PES-00435 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Nafarroako Gobernuaren iritziz, Berdintasunaren inguruko ezagutza nahikoa izatea da berdintasunaren esparru kontzeptuala ezagutzea, genero ikuspegia askotariko esparru sektorialetan sartzen jakitea dauden genero arrakalak detektatzeko eta ezabatzeko nahiz murrizteko politikak inplementatzeko, administrazio-jarduketak eta politikak definitzean 17/2019 Foru Legean ezarritako zeharkakotasun mekanismoak aplikatzea eta ekintza positiboak definitzea.

Hori jotzen du oinarritzat hartuta akademiak, kontsultore espezializatuek eta establezimendu politiko nazionalak eta nazioartekoek genero ikuspegia politiketan eta administrazioan txertatzearen inguruan pilatutako esperientzia, baita nazioaz gaidiko erakundeek eta emakumeen erakunde feministen esperientzia oinarritzat hartuta ere.

Ezagutza horretatik abiatuta prestakuntza-ibilbidea definitu da genero berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileak prestatzeko. Ibilbideak aukera ematen du gaitasun profesionalen maila nahikoa lortzea emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa integratzeko jarduera profesionala gauzatzean, esku hartzeek eragin positiboa izan dezaten genero arrakalak murrizteko.

Zehazki, Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Departamentuarterko Batzordeko kide direnentzat, beharrezkotzat jotzen da berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko prestakuntza oinarritzakoa, bai eta kudeaketari (plangintza, jarraipena eta ebaluazioa, langile kudeaketa, laneko arriskuak genero ikuspegiarekin, lege betebeharrak eta abar) eta sektoreari lotutako ezagutzen inguruko ere, aukera emanen dutenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren I. Berdintasun Planaren helburuak hobeto ulertzeko eta sustatzeko.

I. ERANSKINA

Prestakuntza ibilbidea genero berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko

I. maila. Oinarritzakoa edo hasierakoa. Berdintasunaren esparru kontzeptuala. Genero harremanak, berdintasun politika eta aplikatzeko estrategia ulertzeko beharrezko gutxieneko ezagutzak.

CI.I. OINARRIZKO PRESTAKUNTZA BERDINTASUNEAN: GENERO IKUSPEGIA ESKU HARTZE PUBLIKOAN ZERGATIK TXERTATU BEHAR DEN ULERTZEKO GAKOAK

CI.II. OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN

II. maila. Kudeatzeko prestakuntza. Ezagutzak eta trebetasunak genero ikuspegia integratzeko laneko prozesuetan, jardunbide profesionalen eta administrazio prozeduretan

C II.I. KUDEAKETA AURRERATUA BERDINTASUNAREN BIDEZ

C II. II. PLANGINTZA ETA JARRAIPENA

C II.III. KONTRATAZIOA, DIRULAGUNTZAK ETA HITZARMENAK

C II. IV. GENERO-BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA SORTZEN DIREN ARAUDIETAN TXERTATZEA

C II.V. GIZA BALIABIDEAK ETA BERDINTASUNA

CII.VI. GENERO IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK

CII. VII. GARDENTASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

C II. VIII. LEGE BETEBEHARRAK BERDINTASUNA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAN TXERTATZEKO

CII. IX. ESTEREOTIPOAK ETA KOMUNIKAZIOA

III. maila. Sektoriala. Ezagutzak eta trebetasunak genero ikuspegia politika sektorialetan txertatzeko.

CIII.I. GENERO IKUSPEGIA KULTURAKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.II. GENERO IKUSPEGIA KIROLEKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.III. GENERO IKUSPEGIA GAZTERIAKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.IV. GENERO IKUSPEGIA HERRITARREN PARTE-HARTZEKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.V. GENERO IKUSPEGIA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.VI. GENERO IKUSPEGIA ESKUBIDE SOZIALETAKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.VII. GENERO IKUSPEGIA ENPLEGUKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.VIII. GENERO IKUSPEGIA HEZKUNTZAKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.IX. GENERO IKUSPEGIA OSASUNEKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.X. GENERO IKUSPEGIA KOMUNIKAZIOKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.XI. GENERO IKUSPEGIA JUSTIZIAKO ETA BARNEKO POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.XII. GENERO IKUSPEGIA LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN POLITIKA SEKTORIALETAN

CIII.XIII. GENERO IKUSPEGIA EKONOMIA GARAPENEN POLITIKA SEKTORIALETAN

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00436. Galdera, Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00436 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

- Zer emaitza lortu dira analisi horren harira? Datu horiek kontuan hartuta, zer balorazio egin da familia elkartzeko gunea Lizarrako Barrutira hedatzei aukerari buruz?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialak, Ekonomia Sozialak eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

2023. urtean, familia elkartzeko gune orokorretan arreta amen zitzaien guztira 232 familiari, hau da, 823 pertsonari, barnean hartuta haurrak eta gurasoak. PES-00061 galderaren erantzunean jakinarazi zenez, urte horretan artatutakoen artean Lizarrako Barrutikoak 26 izan ziren, hau da, % 3,1.

2023an zehar elkartzeko gune orokorretan artatzen hasi ziren kasu berriak 76 dira guztira, eta 267 pertsonari eman zitzaien arreta guztira. Horietatik bederatzi baino ez ziren izan Lizarrako Barrutikoak (% 3,5).

2023an artatutako 232 familietatik, zazpi Lizarako epaitegitik etorri ziren. Eta urte horretan hasitako 76 kasuetatik hiru baino ez ziren etorri epaitegi horretatik.

Gaur egun, barruti horretako sei kasu baino ez dira artatzen ari, hiru Tafallako Elkartzeko Gunean eta beste hiru Iruñeko elkartzeko guneetan.

Une honetan, ez dago kasuen bolumen nahikorik zerbitzu berri bat sortzea justifikatzen duenik efizientziaren ikuspuntutik, eta ez da lehentasunezkoa Hautzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzaren premia emergenteen aldean.

Edozelan ere, oraindik osatu behar da epaitegiak ez deribatutako kasuen analisia, familia elkartzeko guneren batean artatzeko modukoak izaten ahal baitira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 15ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: M.^a Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00437. Galdera, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00437); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zein dira eta zertan dautza 2023ko Berdintasunerako Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egitean "zeharkako eragina duten eta zenbatespen ekonomikoa konplexua delako eta beste metodologia batzuekin aztertu behar direlako kontuan hartu ez diren" programak?

Galdera hori erantzuteko kontuan hartu behar da bi gastu mota daudela:

Aurrekontua definitzeko unean kuantifikatzen errazak diren gastuak, hau da, berdintasuneko zuzeneko gastuak: emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei laguntzeko gastua, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekintzak emakumeen enplegarritasunerako, laguntza teknikoak genero ikuspegia duten dirulaguntzak eta kontratuak egiten ikasteko, plantillaren berdintasunari buruzko prestakuntza eta maskulinitate igualitarioak lantzen dituzten taldeentzako, eta abar. Unera arte, genero ikuspegia duten aurrekontuen proiektuan parte hartzen duten programen gastu espezifikoak (edo zuzenekoak) jakin ahal izan da, eta 32 dira (proiektuan urtero sartzen dira programak).

Kuantifikatzen zaila den gastua. Esate baterako, dirulaguntza batek jasotzen badu zuzkidura areagotuko duela emakume onuradunentzat (edo beste genero klausula bat), zaila da a priori jakitea, aurrekontuak definitzeko unean, zer zenbateko sortuko den kontzeptu horrengatik. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lan egiten dutenek zeharkakotasun mekanismoen bidez genero ikuspegia aplikatzeak eragina du ere bat orduetan, eta, beraz, ekonomian, eta zaila da identifikatzen batean nahiz bestean. Hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eguneroko zereginean genero ikuspegia zenbat eta gehiago sartu, berdintasunaren aldeko gero eta ekintza gehiago daude, eta, oraingoz, ezin ditugu kuantifikatu.

Azkenik, irailaren 27an 11-24/PEI-000727 ekimenerako erantzunean adierazi zenarekin bat, ez dago horren inguruko dokumenturik zure galderan hizpide diren programak jasotzen dituenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00438. Galdera, 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202407340 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko urriaren 29an (11-24/PES-438 galdera), 2023ko diruzaintzako gerakinaren destinoari buruzko informazioa eskatzeko. Hona

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean jasota dago aurrekontuan aldaketak egiteko aukera, kasu jakin batzuetan eta baldintza jakin batzuen arabera, eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen dira positiboa denean.

Unera arte, 2024. urtean ez da ezein aldaketarik egin aurrekontuan 2023ko abenduaren 31n zegoen gastu orokorretako diruzaintzako gerakinaren kargura.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00439. Galdera, Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berriro sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berriro sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-

00439 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, 2018an Nafarroako Gobernuak bi hartz Mendebaldeko Pirinioan berriro sartzearen ondorioz hartutako neurriei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Dokumentu horretan proposatutako neurriak bete al dira?

Ondoko tauletan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko eta INTIAko langileek –Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak sozietate horri egindako enkarguaren bidez– proposatutako neurrietako bakoitzaren betetze maila adierazten da:

ABELTZAINZA SEKTOREAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK		Betetze maila	Oharrak
PREBENTIZIOZKOAK			
1	Berriro sartutako aleen jarraipen geolokalizatu jarraitua. Kalteak detektatzea eta haien berri ematea.	Beteta	Frantziak eskatutako hartzen geolokalizagailuek GPS lokalizazioak eman zituzten ia bi urtez. Aldi horretan zehar haien kokapena ezaguna izan zen eta haien presentziaren berri eman zitzaizen abeltzainei eta Erronkaribarko Batzorde Nagusiari (JGVR).
2	Informazio eta komunikazio arinak	Beteta	SMS talde bat sortu zen ukitutakoekin hartzen presentziaren berri emateko. Abeltzainei eta JGVRri jakinarazi eta komunikatu zaie arin.
3	Alerta sistemak eta disuasio-jardunbideak eraso errepikatutak saihesteko.	Beteta	Disuasio neurriak eman zaizkie ukitutako abeltzainei gehien komeni zitzaizkien alde egin zezaten. Gutxi gorabehera 30 abeltzainekin egiten ziren elkarriketak urtero, eta 22 edo 23k (urtearen arabera) GPSa eskatzen zuten, 4k itxurak eskatzen zituzten eta 6 edo 8k (urtearen arabera) laguntzako artzaina eskatzen zuten.
4	Babes txakurrak eta baliatzeko prestakuntza ematea, bai eta informazioa ere haien presentziari buruz.	Beteta	Artzakur kumeak eman zitzaizkien hainbat abeltzaini, bai eta kontaktua ere prestakuntzarako, eta informazioa eman zitzaizen zonan zuten presentziaren inguruan. Azken horretarako, haien presentziaren berri emateko eta artzakurrekin izan beharreko jarreraren inguruko informazio kartelak jarri ziren.
5	Abere taldeen geolokalizazioa eta datuak gurutzatzea hartzen lokalizazioarekin.	Beteta	Hartzen GPS igorgailuak aktibatuta egon ziren bitartean egin ahal izan zen, eta GPSa jarrita zuten abere taldeekin.
6	Ustategiak identifikatzea arrisku handieneko eremuetan / Geolokalizazioa.	Beteta	Arrisku eremuetako ustategiak identifikatu dira eta geolokalizagailuak eman zaizkie haien abere taldeetarako.
ABELTZAINZA ESTENTSIBOAREN SEKTOREA SUSTATZEA			
7	Abeltzaintzako ustategiak indartzeko plan pilotua, barnean hartuta langileen kontratazioa eta prestakuntza.	Partzialki	Langileak kontratatu dira abere taldeen zereginak errazteko, hartzen presentziaren ondoriozko lan gehigarria murrizteko.
8	Sektorea indartu da abere taldeen zaintzan eta jagoletzan lagunduko duten abeltzainekin.	Partzialki	Kontratutako langile horiek laguntza abeltzainak izan dira hartzen presentzia handieneko zonako ustategietarako. Abeltzain horiei oinarritzko prestakuntza eman zaie abere taldeak zaintzeko, hartz arrearren erasoak kudeatzeko eta espeziearen arrasto nagusien inguruan.
9	Abere taldeak elkartzea, abeltzaintza ordaintzea eta eguneko eta gaueko inguruneak antolatzea, abeltzainei lehenetsuna emanez eta/edo kanpoko abeltzainak kontratatuz.	Partzialki	Kontratutako kanpoko abeltzainetako batzuek berriro elkartutako abere talde batzuk zaindu dituzte. Oro har, abeltzainek ez dute interesa agertu elkartzeko horretarako.
10	Mendateetan aterpeak eraikitzea abeltzaintzako. Borda eramangarriak, abere taldeak zaintzea.	Partzialki	Abeltzainei laguntzeko hiru aterpe eraiki ziren (Yeguceros, Lutoa eta Subicea), eta aterpe horietan arian-arian egiten dira mantentze lanak. Horrez gain, karabana eramangarri bat eskuratu da laguntza-abeltzainari aterpe emateko.

11	Hesi elektrikoak eskuragarri jartzea, bai eta azpiegiturak mantentzea eta herri-lurretara sartzea ere.	Beteta	Hesi elektrikoak eskaini dira. Horrez gain, eskariaren araberako materiala dago hesi elektrikoetarako, neurri gehiago behar izanez gero, eta dauden girgiluak mantentzeko lanak egin dira.
12	Abeltzaintzako azpiegiturak eraikitzea: pistak, itxiturak, girgiluak, aterpeak	Partzialki	Aldizkako lanak egin dira abeltzaintzako azpiegitura batzuk, pistak edota girgiluak mantentzeko
13	Ekografoak erabiltzeko aukera abortu tasa ezagutzeko	Beteta	INTIAk ekografoaren baliabidea jarri du abeltzainen eta Ingurumen Departamentuaren eskura, diagnostikoa egin dezaten behin mendatetik jaitsi ondoen eta abeltzainek eta Ingurumen Departamentuak eskatzen dutenean.
14	Artzain eskola sortzeko edo artzain eskoletan gazteak prestatzeko analisia, praktikak Nafarroan eginez, eta ondoren kontratatzeoko aukera	Beteta	Gomitzegiko (Arantzazu) artzain eskola bisitatu da, eta Nafarroan artzain aritzeko aukera eskaini da. Gainera, Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan, artzain eskola sortzeko lanean ari da JGVRa.
15	Hartz zonak sartzea landazainen laguntzetako hautaketa irizpideetan	Ez da bete	
16	Bordetan tokiko produktuak saltzeko aukera	Ez da bete	
17	Lehenasuna lehenengo instalazioetan	Ez da bete	

LURRALDE KUDEAKETA			
18	Hartzaren talde espezializatua kontratatzea. "Tokiko basozainak"Jarraipena, laguntza eta errefortzua basozainei.	Partzialki	Nafarroako Gobernuaren B/GMA zerbitzuak gertuko jarraipena egiten dio hartz arreari Nafarroan. Errokariko eskualdean plaza berri bat sortu da arrazoi horrengatik.
19	Lantalde egonkorra: Nafarroako Gobernuo, INTIAko eta toki entitateetako teknikariak eta abeltzainak	Partzialki	Diziplinarteko talde bat sortu da (Nafarroako Gobernuo teknikaria, INTIAko albataria eta B/GMA), urtero gauzatutako neurriak ebaluatzeko eta baloratzeko, eta ardi ustiategi guztietara egin dira bisitak.
20	Komunikazio eta informazio bide egonkorak eta arinak Nafarroako Gobernuaren/toki entitateen eta sektorearen artean	Partzialki	B/GMAk komunikazio aktiboa izan du ukitutako abeltzainekin eta JGVRaren presidentetarekin.
21	Abeltzain elkarteak eta batzordeak sortzea	Ez da bete	
22	Errokariko Larreen Antolamendurako Plana onestea	Partzialki	Lan egiten ari da Errokariko goi eremuetako larreen antolamenduarekin hasteko
23	Bisitak antzeko problematikak dituzten hartz zonetara, lurraldeko eragileen arteko trukea	Beteta	Etengabeko komunikazioa egon da Aragoirekin informazioa eta esperientziak elkarrekin trukatzeko, hala nola hesi elektrikoak jartzeko kasuan. Halaber, Kataluniarekin ere harremanetan egon da bertara bisitak egiteko eta berriro elkartutako abere talde babestuen baloratzeko. Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren teknikariak, abeltzainak eta Pirinioko kide batzuk Kantabriako mendilerroa joan ziren, hartza dagoen eremura (Somiedo), zer egiten den ikusteko.
24	"Hartz" marka bat sortzea, abeltzaintzako produktuak birbalorizatuko dituen	Ez da bete	
KALTE-ORDAINEKO ETA KONPENTSAZIOAKO NEURRIAK			
25	Kalte-ordain egokiak. Berrikustea eta eguneratzea. Aintzat hartzea erasoak, desagerraraziak eta beste kalte batzuk (abortuak, albaitaritzako tratamenduak eta abar)	Beteta	Unera arte, 1996ko Berreskuratze Planean ezarritako baremoak aplikatzen jarraitzen ziren. Baremo horiek aldatuko dira 2025eko Aurrekontuen Legean.
26	Prozedura arinak eta aseguru espezifikoak izateko aukera	Partzialki	Ahalik gehien arindu dira erasoen ondoriozko ordainketak egiteko prozedurak.
27	Herri larreak eta larre partikularrek hartzaren eraginpeko zona gisa katalogatzea, eta zenbateko finko bat esleitzea erasoak jasaten ahal dituzten abeltzain guztientzat	Ez da bete	Ez da aurrerapenik egon gai horretan, 2000-2010 urteen bitartean izandako esperientzia ez zelako behar adina ona izan.
28	Hartzak eragindako kalteen protokoloa berrikustea	Beteta	Hartzak eragindako kalteen protokoloa aldizka berrikusten da.
29	Lehenasuna ematea dirulaguntzei hartza dagoen eremuetan / hautaketa irizpideak landa garapeneko planaren neurriak / Mendi larreak / Abeltzaintzako azpiegiturak	Beteta	2024an PEPACaren bitartez nekazaritza eta ingurumeneko laguntza bat ezarri da abeltzaintza estentsiboaren eta haragijale handien baterako existentziarako. Laguntza horrek lau neurri hartzen ditu barnean. 1, 2, eta 3. neurrietan, hartza egoteko arrisku eremuetako abeltzainek lehenasuna dute gainerakoen aldean, eta 4. neurria haientzat baino ez da.
30	hartz eremuaren irizpidea toki entitateetako landazainen deialdietan	Ez da bete	
31	Nafarroako Gobernuak abeltzaintza sektoreko lehenengo instalazioko proiektuak sustatzea	Ez da bete	

NATURA EZAGUTZEKO ZENTROAK

32	Kantabriako mendilerroko eta Pirinioetako hartzen inguruko ingurumen-hezkuntzako truke sarean sartzea.	Ez da bete	
33	Hartzari buruzko informazio guztia partekatzea eta helaraztea. Tokikoei informazioa helarazteko bideak.	Partzialki bete da	Nahiz eta informazio kanal ofizialik ez egon, Basozainek informazioa helarazten dute modu informalean.
34	Inguruan lan egiten duten eragileei (ikastetxeetako irakasleak, turismo eragileak, jarduera enpresak, ingurumen arlokoak, abeltzainak...) zuzendutako prestakuntza eskaintza diseinatu eta garatzea.	Partzialki bete da	Inguruko ikastetxeekin gai batzuk landu dira, eta bisitariekin ere bai. Ingurumen Departamentuaren alde aurreko baimenarekin eta zaindarien alde aurreko prestakuntzarekin (kasu batzuetan haiekin), batez ere fototranpeoari, aztamak identifikatzeari eta habitatar buruzko gaiekin.
35	Tokiko biztanleriari zuzendutako hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak	Partzialki bete da	Kartelak banatu ziren bisitariak artzakerrekin topo egitean izan beharreko portaerari buruz
36	Hartzari buruzko material didaktikoak lantzea tokiko eta beste lurralde batzuetako ikasleentzat	Ez da bete	Material zaharra dago, eta eskatzen duten ikastetxeekin lantzen da.
37	Jardunbide egokien gidak berreskuratzea eta eguneratzea	Ez da bete	
38	Abeltzaintza estentsiboa ikusarazteko kanpainak	Ez da bete	
39	Portaerako jarraibideak diseinatzea eta zabaltzea	Partzialki bete da	Inguruko taberna eta ostatuetan poster bat banatu zen "hartzen presentziaren aurrean egin beharrekoari" buruzko informazioarekin.
40	Ingurumen hezkuntzari buruzko urteko jardunaldia: "Fauna eta erabilera tradizionalak	Ez da bete	

TURISMOAREN SEKTOREA ETA ESKOLA-ESKI KANPAINAK

41	Turismo produktu bat sortzea, hartza inguruko produktu gastronomikoekin lotuta.	Ez da bete	
42	Sektoreari informazioa eta prestakuntza ematea	Ez da bete	
43	Hartz arreearen eta erabilera tradizionalen gaineko turismo azpiegiturak (bidezidorrak, begiratoiak, interpretazio-ibilbideak)	Ez da bete	
44	Hartz arreearen gaia sartzea eskola-eskiko kanpainaren barruan	Ez da bete	

BESTE SEKTORE BATZUK

45	Hartzarentzako elikagai diren fruta arbolen sailak	Partzialki bete da	Fruta arbolak landatu dira hainbat lekutan: Belagua, Maze, Garde mendilerroa, eta zenbait mantentze-lan egin dira.
----	--	--------------------	--

PRESTAKUNTZA, HEZKUNTZA

46	CINei informazioa ematea	Ez da bete	
47	Basozaintzako prestakuntza espezifikoa	Beteta	Prestakuntza eman zaie sartu berri diren basozainei, eta ile tranpen ikastaro bat eman da Basozainak zerbitzurako, Frantziako basozainekin lankidetzan.
48	Ehiztariei, baso enpresei eta abarri informazioa ematea.	Beteta	Bilerak egin dira inguruko ehiztariekin, hartza dagoela eta ehizarekin bateragarria dela jakinarazteko. Gainera, inguruko zurlariei jakinarazi zaie hartza dagoela haien inguruan.

KUDEAKETA GOBERNANTZA

49	Ezohiko jokabideengatik eta salbuespenezko egoerengatik irteteko protokoloa. Aldeek onetsi dute	Partzialki	Nafarroak Ministerioaren hartz arazotsuei buruzko protokoloak berrikusteko parte bete du
50	Pirinioetako mendigunearen koordinazioa CTPren bidez. Europako funtsak bilatzea	Beteta	Nafarroak GSTOPen parte hartzen du (Pirinioetako Hartz Arreearen Mugaz Gaiindiko Jarraipen Taldea), Katalunia, Aragoi, Andorra, Frantzia eta Nafarroa dira talde horretako kide. Talde honetan, Pirinioetako mendiguneko hartzen jarraipen eta kontserbazio jarduketak egiten dira.
51	Aurrekontuko partida espezifikoa bat sortzea	Beteta	Partida espezifikoa bat dago hartzarekin lotutako lanak egiteko
52	Ekintza Planaren Jarraipenerako Lantaldea sortzea	Beteta	Diziplinarteko talde bat dago (Nafarroako Gobernuaren teknikaria, INTIAko albataria eta B/GMA) neurriak urtero ebaluatzen eta berrikusten dituena.
53	Datuak eta portaerak aztertzeko talde teknikoaren lantaldea	Beteta	GSTOPen barruan egin da lan
54	Sektoreen arteko akordioak, inor ez kaltetzeko eta eremua garatzeko aukera izan dadin	Ez da bete	
55	Parte-hartzea eta gardentasuna administrazioen jardueran	Ez da bete	
56	Etengabeko ebaluazioa	Beteta	Urtero jasotzen da hartzari buruzko informazio guztia, eta egindako lanak eta emaitzak baloratzen dira.
57	Sortutako egoerari eta Frantziako Estatuaren lankidetzarik ezari buruzko Europako Batzordearen komunikazioa	Partzialki	Nafarroak behin baino gehiagotan adierazi dio Estatuak Administrazio Orokorrari Pirinioetan espeziake sartu aurretik mendigunean azterketa egin behar dela, ez soilik Frantziako aldean, eta, gainera, Espainiako eskualde administrazioen iritzia behar dela.

2. Ezarritako neurrien bidez lortutako emaitzak baloratu al dira?

Planaren neurrien balorazio globala positiboa da; izan ere, neurri ugari eraginkorrak izan dira eta horiei eutsi behar zaie, baina badago ere beste batzuen bideragarritasuna eta erabilgarritasuna berrikusteko beharrik.

3. Dokumentu horretan jasotzen diren neurriak Erronkaribarko Batzorde Nagusiak berriro ere eskatu dituen berberak edo antzekoak al dira?

2018an jasotako neurrietako zenbait oso antzekoak dira 2024an berriro eskatutakoaren aldean, eta beste batzuk berriak dira. Jarraian zerrendatzen dira 2024an Erronkaribarko Batzordetik jasotako neurriak, adierazita berria den edo 2018an jadanik jasota zegoen:

1. Erantzukizuna eskatzea Frantziako Gobernuari neurri berria da.

2. Hartzak monitorizatzea jasota zegoen 2018an.

3. Informazio eta komunikazio arinak jasota zegoen 2018an, baina egunero egitea neurri berria da.

4. Nafarroako eta Aragoiko komunikabideei eraso bakoitzaren berri ematea neurri berria da.

5. Hartzaren kostu errealarren berri ematea neurri berria da.

6. Aragoirekin koordinatzea neurri berria da.

7. Errefortzuko basozainak kontratatzekeo laguntza neurri berria da.

8. Telefono estaldura neurri berria da.

9. Artzain elektrikoak alferrikakoak direlako abereak entzerratzeko hesiak jartzea neurri berria da.

10. Sarbide onak egitea jasota zegoen 2018an.

11. Abeltzaintzako azpiegiturak 2018an jasotako neurria da.

12. Zuzeneko laguntzak 2018an jasotako neurria da.

13. etengabeko lan mahaia 2018an jasotako neurria da.

14. Basozainei laguntzeko langile gehiago kontratatzea 2018an jasotako neurria da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00440. Galdera, bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Vox Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Nosti Izquierdo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, honako hau jakiteko: “Bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek ez dute arriskugarritasun-osagarria jasotzen, eta Suhiltzaileen Kidegokoek, ordea, bai, nahiz eta dauzkaten arriskuak berberak diren. Zergatik?” (11-24/PES-00440). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Bizi euskarri aurreratuko anbulantzietako erizainen ordainsariak Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean zehazten dira.

Foru Lege horretako zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, 2011ko azaroaren 1etik aurrera, toxikotasun, nekagarritasun edo arrisku bereziko egoerak ekar ditzaketan lanpostuetan ari diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek arrisku bereziko osagarri bat jasotzen ahalko dute, xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera.

Osasun arloko langileei dagozkien eginkizuntan ager daitezkeen mota guztietako arriskuak aintzat harturik (besteak beste, eragile fisiko, kimiko eta biologikoek eragindakoak), Osasunbidea-

Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza zentroetako lan arloak honela sailkatzen dira:

A) Operazio gelak.

B) Ospitaleetako Larrialdiak, Zainketa Intentsiboak, Genetikako Laborategia, Anatomia Patologikoa eta Medikuntza Nuklearra.

C) Onko-hematologia (honen barruan eguneko ospitalea eta ospitalizazio onkologikoen unitateak daude), farmazia eta hemodialisia.

D) Errehabilitazioa, Fisioterapia, Endoskopiak, Erradiologia eta Erradioterapia.

E) Ospitalizazioko gainerako unitateak, ospitalez kanpoko larrialdiak eta gainerako laborategiak.

F) Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeak, Emakumeari Laguntzeko Zentroak, Ospitalez Kanpoko Kontsultak, Osasun Mentaleko Zentroak eta Etxeko Ospitalizazioa.

Osasun arloko langileek arrisku bereziko osagarri gisa jasotzen ahalko dute, aurreko atalean ezarri diren arloetako batzuen barneko unitate organikoari atxikitako lanpostuetan osasun eginkizunak bete bitartean, bakoitzaren mailaren hasierako soldadari honako portzentaje hauek aplikatuta ateratzen den zenbatekoa:

• A), B), C) eta D) letran sartutako arloak: % 2.

• E) eta F) letretan sartutako arloak: % 1.

Aipatu arloetako batean baino gehiagotan sartutako unitate organiko desberdinetan aritu ohi diren osasun arloko langileek E) letrako arloetarako ezarri den arrisku bereziko osagarria jasoko dute. Osasun arlokoak ez diren langileek ez dute osagarririk jasoko.

Hortaz, hautematen den arriskua foru lege horretan markatutakoa da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00441. Galdera, Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruénigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruénigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari (PPN) atxikitako foru parlamentari Irene Royo Ortín andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "Departamentuak zergatik kendu zuen guardiako mediku bat urriaren 18ko arratsaldean eta gauean Cintruénigon?" (11-24/PES-00441). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Urriaren 18an, ostiralean, Cintruénigon arratsalde eta gau horretan guardia egin behar zuen medikuak bat-bateko osasun arazoa izan zuen goizean, eta baja medikoa behar izan zuen. Nahiz

eta taldeko eta beste osasun etxe batzuetako medikuen artean ordezkari bat bilatzen saiatu egun horretako guardia egin zezan, ezin izan zen medikurik aurkitu absentzia hori betetzeko gai zenik aurreabisu txiki horrekin.

Hori horrela, erabaki zen arreta jarraituko puntua mantenduko zela erizaintzako bi profesionalekin, eskariari aurre egiteko. Egoera jakinarazi zitzaizen 112ri, eskualde oinarritzko mugakideetako guardiako taldeei eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Larrialdiei.

Erizaintzako langileek arreta eman zieten bertaratutako bi pazienteri, ez zen baliabiderik mobilizatu behar izan beste puntu batzuetatik, eta ez zen etxeko abisurik egon artatzeko.

Ustekabeko egoerak, hala nola urriaren 18an izandakoa, aurreikusitako ezin diren zirkunstantziak dira, hain zuzen, eta, hortaz, ezin dugu jakin errepikatuko direnik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00442. Galdera, SCRAPei baimena emateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak SCRAPei baimena emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH BILDU NAFARROA talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00442 idatzizko galdera egin du, SCRAP baimenei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Ontzi-ekoizleek eratutako SCRAP-erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboren batek eskatu al dio baimena Nafarroako Foru Komunitateari?

Ez. Batek ere ez du egoitza soziala Nafarroan. 2024an ontzi industrialen SIRAP bakar baten komunikazioa baino ez da jaso. Duela gutxi, dokumentazioa hobetzeko errekerimendua egin zaio, eta izapidetzeko fasean dago hortaz.

2. Zer SCRAP-erantzukizun zabalduaren sistema kolektibo baimendu d(it)u Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak?

2024ko urriaren 23an Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITERD) antolatutako Autonomia Erkidegoen Ontzien Lantaldearen bilera izan genuen. MITERDek SCRAPen baimenen egoera aurkeztu zigun, eta kasuko SCRAPak egoitza soziala duen autonomia erkidegoak ematen ditu baimen horiek.

- Gaur egun, Procircular baino ez dago baimenduta.

- Ecovidrio, Sigre eta Envalora SCRAPek Koordinazio Batzordearen (ICC) aldeko txostena dute, baimenaren ebazpenerako nahitaezkoa.

- Ecoembes domésticori dagokionez, ICCaren zirriborroaren iruzkinak jaso dira jadanik, eta espero da datozen egunetan behin betiko txostena ematea, onetsi dadin. Bestalde, Ambien-

vases entitaterako ICCaren txostena jadanik helarazi zaie autonomia erkidegoei. Ubica SCRAParen kasuan, dokumentazioa ebaluatu da jadanik, ebazpen proposamena aurkeztu da eta ICCaren zirriborroa autonomia erkidego guztiei bidaltzeke dago.

- Gainerako SCRAPetarako: Ecotic, Sigfito, Ecoembes comerciales, Implica, Genci, Fundación Ecolec envases, Recyclia envases y cartón Circular, dokumentazioa eta ebazpen proposamena bidali zaie autonomia erkidego guztiei, eta ebaluatzeko eta ICCaren zain dago. Halaber, AEVAE eta Punto Greta SCRAPen dokumentazioa oraindik bidali behar da.

3. Zertan da Ecoembes SCRAParen baimena? Gaur ba al du baimenik?

Ez du baimenik. Aurreko galderan azaltzen denez, Koordinazio Batzordeak oraindik eman behar du behin betiko txostena.

4. Berritu al da edo hitzarmen berririk egin al da Ecoembes SCRAParekin?

Ezin da berritu, legezko gehieneko epea igaro delako, eta ezin da sinatu, SCRAPak oraindik ez baitu baimenik.

Aurrekoa gorabehera, 2024ko urriaren 21ean, MITERDek ohar bat igorri zuen (komunikazio honi erantsi zaio) ontzien SCRAPen baimenen egoerari buruz, eta ohar horretan jasota dago behin-behineko baimen bat emateko aukera, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularerako apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 39 in fine artikuluekin bat etorritik, aukera emanen duena jarduerari ekiteko espedientea izapidetu bitartean eta kasuan kasuko behin betiko baimena ematen duen ebazpena lortu artean. Bide horrek aukera eman du hitzarmenak sinatzeko aurreratzeko.

5. Hitzarmen berri bat sinatze aldera Ecoembesekin izaten ari diren negoziazioetan kontuan hartzen ari al dira ontzien bilketaren arloko esku-mena duten toki-entitateek egindako ekarpenak?

Bai. Toki entitateek Ecoembesekin egindako negoziazio bilera guztietan hartu dute parte salbuespenik gabe. Haien egindako ekarpenak jaso eta Ecoembesekin eztabaidatu dira.

Irailaren 26an izandako azken bileran baino ez ziren joan Iruñeko Mankomunitateko eta Sakana-ko Mankomunitateko ordezkariak eta landa izae-

raren indize altuko hainbat mankomunitatetako ordezkari bat.

Aldez aurretik, mankomunitate guztiek irailaren 19an Nafarroako Udalerrien Federazioaren egoitzan izandako bilera batean, gainerako mankomunitateek ordezkagarritasuna eskuordetu zioten.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00443. Galdera, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00443); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

2023aren amaiera aldean, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jaso zuen Nafarroako Gobernuak. Zer urrats egin du Gobernuak harrezkero?

Gertuko edukien agregatzaile bat edo gisako ekimenen batik abiaraziko al du Nafarroako Gober-

nuak? Hala baldin bada, zein izanen litzateke horren xedea eta zer epetan izanen litzateke hori?

Gertuko edukien agregatzailearen proiektua, lizitatu ondoren Flumotion Services SA enpresari enkargatua, Komunikazioaren eta Proiektzio Instuzionalaren Zuzendaritza Nagusiari entregatu zitzaion 2023ko abenduan.

Une honetan ikus-entzunezko edukien plataforma bat ari da prestatzen Nafarroa Marka proiektuaren inguruan. Euskarri berri horrek aukera ematen du hainbat iraupenetako bideoak erakusteko, eta gaiaren arabera daude sailkatuta. Aldi berean, plataformak beste dokumentu batzuk jasotzeko aukera ere ematen du, hala nola txostenak, azterlanak edota Nafarroako Gobernuaren plan estrategikoak, eta, horrez gain, audio fitxategien (podcast) biltegi sailkatua ere bada.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00444. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak informazio eskaera egin du 2023an zehar Nafarroako Klinika Unibertsitariora "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren

kargura igorritako pertsonen inguruan (11-24/PES-00444). Hona Nafarroako Gobernuoko Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua osatzen duen parte den aldetik, informazioa ematen du Zerbitzuan bertan formalizatutako jarduera administratiboei buruz, eta urtean gertatutakoa laburbiltzen saiatzen da. Hori dela-eta, Memorian jasota dagoen informazioak, hizpide dugun kasu honetan, Nafarroako Klinika Unibertsitarioan 2023an Itxaron zerrendetarako estrategien partidaren kargura artatutako itxaron-zerrendaren ingurukoa, daturik esanguratsuenak adierazten ditu. Edozelan ere, jarraian, egindako askotariko asistentzietatik eratorritako gastuari eta paziente kopuruari buruzko informazioa espezialitate guztietarako jasotzen duen taula dago ikusgai:

ZERBITZU IGORLEAK	PAZIENTE KOPURUA	ZENBATEKOA	ZENBATEKO GUZTIAREN %	PAZIENTE GUZTIEN %	BATEZ BESTEKO PREZIOA
ANGIOLOGIA ETA KIRURGIA BASKULARRA	63	59.150,68	% 3,02	% 3,21	938,90
KARDIOLOGIA	155	622.313,67	% 31,74	% 7,90	4.014,93
KIRURGIA OROKORRA	13	40.616,97	% 2,07	% 0,66	3.124,38
NEUROFISIOLOGIA	83	10.058,77	% 0,51	% 4,23	121,19
OFTALMOLOGIA	795	462.223,42	% 23,57	% 40,50	581,41
ORL	583	441.670,80	% 22,52	% 29,70	757,58
ERREHABILITAZIOA	254	283.420,41	% 14,45	% 12,94	1.115,83
TRAUMATOLOGIA	10	38.998,55	% 1,99	% 0,51	3.899,86
BESTE BATZUK	7	2.370,60	% 0,12	% 0,36	338,66
GUZTIRA	1.963	1.960.823,87	% 100,00	% 100,00	998,89

Taula horretan ikusten denez, itsastean izandako arazo baten ondorioz, Oftalmologiako espezialitatean gastuaren ehunekoari dagozkion zifretan % 40,50 jarri zen (pazienteei dagokiena), nahiz eta zifra zuzena % 23,57 izan.

Hori dela-eta, kontuan hartuta egiten diren galderak Memorian transkribatutako espezialitateen ingurukoak direla, goian jarritako taulan agertzen diren espezialitate guztiek izanen dira hizpide.

Paziente bat itxaron-zerrenda bidez deribatzen denean, lehenbiziko asistentziak (inoiz ez da paziente bat deribatzen azterketarako) eskatutakoari erantzuten dio, eta, ondoren, behar diren gainerako asistentzietan jarraitzen da (azterketak, ebakuntzak, probak eta abar). Horrenbestez, zure galderei erantzuteko multzoak egiten ditugu espezialitatearen arabera, eta 2023ko abenduaren 31ra arteko fakturazioari buruzko informazioa emanen da.

Traumatologia:

10 paziente deribatu dira kirurgiako itxaron-zerrenda bidez, eta paziente bakoitzeko batez besteko kostua 3.899,86 eurokoa izan da. Hori horrela, jarduera hau egon da:

KONTZEPTUA	ASISTENTZIA KOPURUA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA
LEHENBIZIKO KONTSULTA	-	-	-
KIRURGIA	4	36.888,42	9.222,11
ERREBISIOAK	11	2.110,13	191,83

Kardiologia:

155 paziente deribatu dira itxaron-zerrenda bidez lehenbiziko kontsultarako nahiz hemodinamikarako, eta paziente bakoitzeko batez besteko kostua 4.014,93 eurokoa izan da. Hori horrela, jarduera hau egon da:

KONTZEPTUA	ASISTENTZIA KOPURUA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA
LEHENBIZIKO KONTSULTA	74	20.911,32	282,59
KIRURGIA EDO HEMODINAMIKA	87	596.994	6.862
ERREBISIOAK	13	4.408,35	339,10

Oftalmologia:

795 paziente deribatu dira lehenbiziko kontsultako itxaron-zerrenda bidez, eta paziente bakoitzeko batez besteko kostua 581,41 eurokoa izan da. Hori horrela, jarduera hau egon da:

KONTZEPTUA	ASISTENTZIA KOPURUA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA
LEHENBIZIKO KONTSULTA	794	189.804,41	794
KIRURGIA	206	259.381,14	206
ERREBISIOAK	65	13.037,87	65

Otorrinolaringologia:

583 paziente deribatu dira lehenbiziko kontsultako itxaron-zerrenda bidez, eta paziente bakoitzeko batez besteko kostua 757,58 eurokoa izan da. Hori horrela, jarduera hau egon da:

KONTZEPTUA	ASISTENTZIA KOPURUA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA
LEHENBIZIKO KONTSULTA	515	255.295,26	495,72
KIRURGIA	57	157.277,58	2.759,26
ERREBISIOAK	116	29.097,96	250,84

Errehabilitazioa-errakisa:

254 paziente deribatu dira lehenbiziko kontsultako itxaron-zerrenda bidez, eta paziente bakoitzeko batez besteko kostua 1.115,83 eurokoa izan da. Hori horrela, jarduera hau egon da:

KONTZEPTUA	ASISTENTZIA KOPURUA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA
LEHENBIZIKO KONTSULTA	252	88.588,10	351,54
KIRURGIA	199	168.589,69	847,18
ERREBISIOAK	93	17.840,19	191,83
TRATAMENDUAK	97	8.402,43	86,62

Adierazienez, honako espezialitate hauetatik deribatutako asistentziei buruzko informazioarekin jarraituko dugu:

- Angiologia eta kirurgia baskularra
- Kirurgia orokorra
- Neurofisiologia

Kirurgia Kardiobaskularreko Zerbitzutik 63 paziente deribatu dituzte kirurgiako balorazioa egin dakien, eta horrek 59.150,68 euroko gastua eragin du 2023an; beraz, paziente bakoitzeko batez besteko kostua 938,90 eurokoa da. Honako hauek dira emandako asistentzien ondoriozko datuak:

- 22 lehenbiziko kontsulta (5.690,48 euro)
- 11 errebisio (2.110,43 euro)

– 42 ebakuntza (51.350,07 euro)

Kirurgia Orokorreko Zerbitzutik 13 paziente deribatu dituzte herniako kirurgia egin dakien, eta horrek 40.616,17 euroko gastua eragin du 2023an 12 kirurgia eta lehenbiziko kontsulta bat egiteko.

Horrez gainera, 83 paziente igorri ziren probak egiteko Neurofisiologiako espezialitatean, eta proba bakoitzeko prezioa 121,19 eurokoa izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00445. Galdera, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gizarte Segurantzaren kolaboratzaileak diren mutuekiko hitzarmenei buruz (11-24/PES-00445). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Gizarte Segurantzaren kolaboratzaileak diren mutuek (MCSS) baimena dute 1996ko urtarrilaren 1az geroztik aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko, betiere enpresaburuak idatziz ituntzen badu eta langileen ordezkari kontsulta egin ondoren (8/2015 ELDaren 80.2 artikuluko b) letra, 625/2014 ELD eta 1993/95 EDaren 69. artikulua; Kolab. erregelamendua)

Kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasuna kudeatzen duten mutuek xedatzen ahal dute aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langileei zerbitzu medikoen errekonozimendua egin diezaietela. Halaber, MCSSek proba diagnostikoak eta tratamendu terapeutikoak nahiz errehabilitazioak egiten ahalko dituzte, xedetzat izanik xedapen horretan jasotako prozesuak behar ez denean luza daitezela saihestea, Osasuneko Zerbitzu Publikoko medikuak baimena eman eta pazienteak baimen informatua sinatu ondoren. (35/2014 Legea, abenduaren 26koa)

Nafarroan, 2017. urteaz geroztik Osasuneko Zerbitzu Publikoaren baimena Lan arloko Balorazio Klinikoaren eta Ikuskatzailetza Medikoaren Atalean dago zentralizatuta, NOPLOren Lan Osasuneko Zuzendariordetzaren Lan Osasuneko Zerbitzu Sanitarioan.

Herritar langileei proba diagnostikoetarako eta tratamenduetarako baimena emateko ala ez emateko irizpideak diziplina anitzeko lantalde batek ezarri zituen. Talde hori osatu zuten NOPLOren mediku ikuskatzaile batzuek, O-NOZen Traumatologia eta Errehabilitazio Zerbitzuetako beste batzuek eta Oinarrizko Osasun Laguntzako nahiz O-NOZen Aholkularitza Juridikoko taldeko profesional batzuek ere bai.

1. taula. MCSSek NOPLOri eskatutako proba, tratamendu eta interkontsulta kopurua kontingentzia arrunten ondoriozko laneko bajaran dauden langileentzako, mutuen arabera bereizita 2023an eta 2024an (irailaren 30era arte metatuta)

MUTUA	ESKATUTAKO KOP. 2023	ESKATUTAKO KOP. 2024
ASEPEYO	17	3
EGARSAT	1	4
FRATERNIDAD	111	106
FREMAP	132	162
IBERMUTUA	18	9
MAZ	57	32
MC MUTUAL	49	36
MUTUA BALEAR	1	0
MUTUA INTERCOMARCAL	0	1
MUTUALIA	2	2
NAFARROA	416	262
UMIVALE	0	1
UNIÓN DE MUTUAS	2	3
UNIVERSAL	17	5
Guztizko orokorra	823	626

2. taula honetan bi aldirako (2023 eta 2024, irailaren 30era arte) erakusten da MCSSek NOPLOIri eskatutako proba osagarrien, tratamenduen eta interkontsulten kopurua kontingentzia arrunten ondorioz laneko bajaran dauden langileen-

tzako. Halaber, O-NOZek aldi horretan izan duen jarduera ere erakusten da, eta, emaitza gisa, azken bi zutabeetan ikusten ahal da eskatutakoa eta MCSSei baimendutakoa zer ehuneko den MCSSek eta O-NOZek egindako guztizkoaren gainean.

2. taula. Gizarte Segurantzaren kolaboratzaileak diren mutuek (MCSS) NOPLOIri eskatutako proba diagnostikoen, kontsulten eta tratamenduen kopurua Nafarroan kontingentzia arrunten ondorioz laneko bajaran dauden langileentzako O-NOZek izandako jarduera. MCSSek eskatutakoaren ehunekoa egindako guztizkoaren gainean. Aldia: 2023 eta 2024ko irailaren 30era arte.						
	MCSSek NOPLOIri eskatutakoak		O-NOZeko jarduera		%	
	2023	2024*	2023	2024*	2023	2024*
PROBA OSAGARRIAK	KOP.	KOP.	KOP.	KOP.		
EKOGRAFIA	127	7	30.985	24.206	0,41	0,03
EMG/ENG	22	9	4.379	2.658	0,50	0,34
RMN**	51	96	28.581	21.625	0,18	0,44
OTA (ordenagailu bidezko tomografia axiala)	13	6	14.313	10.197	0,09	0,06
RX		3				
TRATAMENDUAK						
BELAUNEKO ARTROSKOPIA	32	11	442	341	6,75	3,13
SORBALDAKO ARTROSKOPIA	2	2	346	213	0,57	0,93
KARPOKO KANALAREN SINDROMEKO KIRURGIA	4	3	417	351	0,95	0,85
IZTAIKO HERNIAKO KIRURGIA	2	2	544	516	0,37	0,39
ERREHABILITAZIOA	479	402	11.286	8.883	4,07	4,33
BLOKEO EPIDURALA	3	1	281	191	1,06	0,52
INFILTRAZIOA	41	8	424	388	8,82	2,02
PSIKOLOGIAKO KONTSULTA ETA TRATAMENDUA	16	19	9.286	7.321	0,17	0,26
HATZAMARREKO KIRURGIA	0	4				
KLABIKULAKO KIRURGIA	0	1				
RIZOLISIA	0	1				
ALDAKAKO PROTESI OSOA	0	1				
INTERKONTSULTAK						
TRAUMATOLOGIAKO INTERKONTSULTA	19	15	3.265	2.772	0,58	0,54
ERREHABILITAZIOKO INTERKONTSULTA	9	0	6.904	5.379	0,13	0,00
KIRURGIAKO INTERKONTSULTA	1	1	15.066	9.461	0,01	0,01
KARDIOLOGIAKO INTERKONTSULTA	1	0	10.838	7.965	0,01	0,00
OFTALMOLOGIAKO INTERKONTSULTA	1	0	23.213	16.199	0,00	0,00
GUZTIRA	823	592	160.570	118.666	0,51	0,50

*2024: irailaren 30era arte metatua

** Mutualitateek beste 700 RNM egin dituzte jarduera propio gisa, ez NOPLOIri eskatuta

Ikusten ahal denez, guztira, MCSSen jarduera guztizkoaren % 0,5 da, nola 2023. urtean hala 2024ko irailera arte.

% 1eko balioa honako jarduketa hauek baino ez dute gainditu: belauneko artroskopia, errehabilitazioa eta infiltrazioak. Errehabilitazioa (% 4) baino ez da mantendu antzeko ehunekoetan aldi bietan, eta beherakada nabarmena egon da belauneko artroskopian eta infiltrazioetan.

Datu horiek ikusita, MCSSek egiteko eskatutako eta baimendutako egintzen eragina minimoa da.

MCSSen jarduera horrek aldi baterako ezintasunaren iraupena murriztu duen ikusteko azterlana konplikatu da honako hauek alderatu behar

baitira: MCSSetan probak, tratamenduak eta interkontsultak izan dituzten langileen aldi baterako ezintasunaren iraupena eta O-NOZen tratatuak izan direnen aldi baterako ezintasunaren iraupena, oinarritzko ezaugarri berberak dituztenean (adina, patologia, komorbilitateak...). Horrez gainera, eguneroko jardunean ez daude esplizitatuta mutuak eskaera hori egiteko irizpideak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00446. Galdera, gripearen aurkako txertoen stock faltari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak gripearen aurkako txertoen stock faltari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "zer dela-eta geratu dira Nafarroako osasun-zentroak gripearen aurkako txertoaren stockik gabe?" (11-24/PES-00446). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Kanpainako erregistroen arabera ez da arazorik egon gripearen txertoaren stockarekin. COVIDaren txertoaren kasuan, zentro batzuek zituzten dosiak lehenengo asteetan jarri zituzten eta Ministerioak hurrengo bidalketa egin artean itxaron behar izan zuten, azaroaren 11ra arte.

Osasun Ministerioak koronabirusaren aurkako txertoaren erosketak zentralizatu egin zuen Europa

mailan, eta autonomia erkidegoei banatu zizkien dosiak, bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera eta erosketak eskatzen duen maiztasunarekin.

Urriaren 14an gripearen eta COVIDaren aurkako txertoak jartzeko kanpaina hasi zen, birus horien ondoriozko kasu larriak eta ospitalizazioak saiheste aldera. Azaroaren 10era arte gripearen aurkako txertoaren 102.691 dosi eta COVIDaren aurkakoaren 68.696 dosi erregistratu dira.

Kanpaina azaroaren 29an amaitu zen eta txertoak jartzeko lehentasuna ezarri zen, lehentasunezkoak izanik pertsona instituzionalizatuak eta adinekoak. Nahiz eta kanpaina azaroaren 29an amaitu, Oinarritzko Osasun Laguntzako zentro bakoitzak txertoak jartzen jarraitzen ahal du dituen txerto dosien eta ezartzen duen antolamenduaren arabera.

Kanpainaren xehetasunak URL honetan daude eskuragarri:

Gripearen eta COVIDaren aurkako txertoa jartzeko protokoloa 2024-2025 denboraldirako

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00447. Galdera, Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-24/PES-00447 galdera idatzia egin du Lantzeko meategiaren inguruan. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aurkikuntza hori ikerketako proiektu global baten barnean dago, 2023an haren berri eman zen eta honako esteka honetan duzu eskuragarri: <https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/kulturak-lantzeko-meataritzako-arkeologia-gunea-ebaluatzeko-eta-katalogatzeko-proiektua-jarri-du-abian>

Horrez gain, proiektuko adituek emandako azalpenen bideoak ere kontsultatzen ahal dituzu hemen: <https://www.youtube.com/@CulturaNavarra/videos>

Proiektuak martxan jarraitzen du eta kasuko ikerketak egiten jarraituko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 19an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

